Goieki
GOIERRIKO GARAPEN AGENTZIA

Zenbakia 12

Apirila, 2019

INFORMAZIO ORRIA

ZABALDU LAGUNTZEN PROGRAMA 2019

ETE-EN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZA

HELBURUA: Gutxi nazioartekotuta dauden enpresei atzerrian duten presentzia areagotzen laguntzeko nazioartekotze prozesuan zehar garapen iraunkorra sustatzea.

ONURADUNAK:

Izaera soziala edo instalazio produktiboa EAEn duten mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak (ETE), beti ere, indarrean dagoen deialdia baino lehenago eratuak:

- Enpresa horien esportazioak ez du bere orotarako fakturazioaren %40 gaindituko, 2018. urtean.
- Onuradun izateko baldintzak diru laguntzaren indarraldi osoan iraun beharko du.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Gastu hautagarriak:

- Laguntza jaso dezakete 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burututako ekintzak.
- Zabaldu programak aholkularitza estrategiko eta operatiborako 8 ordu doan eskaintzen dizkie enpresa onuradunei Basque Trade & Investment-ek edo/eta bere kanpo sareak burutzekoa, 2019 urtean.
- Gutxienez, honako akzioetatik 2 mota desberdin egitea sustatzen du Zabaldu programak:
    - Nazioartekotze estrategia lantzea.
    - Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak: patente eta marken erregistroa, batetik, eta homologazioa eta ziurtapena, bestetik.
    - Azokei lotutako gastuak: azoketan parte hartzea, espazioaren alokairua , stand-aren dekorazioa eta azoka bakoitzeko bidaia poltsa bat; biltzarretan, foro espezializatuetan eta azoketan parte hartzea bisitari gisa.
    - Bidaiak: Prospekzio bidaliak, merkatuak aztertzeko eta/edo bezero potentzialak diren enpresekin kontaktatzeko eta/edo azokak bisitatzeko eta/edo biltzarretan edo foro espezializatuetan parte hartzeko.
    - Sustapen gastuak: hedapen eta sustapen materiala helmuga herrialdera egokitzea, publizitatea, sustapen-ekintzak, harreman publikoak eta sustapenerako edo ikerketarako beste ekintza batzuk.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Onartutako gastuaren zenbatekoaren %40raino iritsi daitezke laguntzak, eta gehienez 15.000€ izango dira eskaera bakoitzeko.

Eskatzaileek gehienez hiru eskera aurkez ditzakete deialdi honetan, eta bi hilabeteko tartea egongo da horien artean.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Bide elektronikoz tramitazioari buruzko xehetasunak, baita eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta erabili behar diren gainerako ereduak ere Interneteko www.spri.eus/zabaldu helbidean beteko dira.

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko apirilaren 26an hasiko da; eta 2019ko urriaren 31n bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.